



UDALBILTZAKO PARTZUERGOKO KONTSEILU NAGUSIA

2017ko EKAINAREN 16an BURUTUTAKO BATZARRA:

LABURPENA

- 1.- Aurreko Kontseilu Nagusiko akta onartu da bilkura honen lehenengo puntuan.
- 2.- Lehendakariaren ebazpenen berri eman da bigarren puntuan.
- 3.- 2017ko urtarrilaren 1az geroztik aplikatu den soldata igoera atzeraeraginezko efektuarekin onartzea adostu da bilkuraren hirugarren puntuan.
- 4.- Udalbiltza Elkartearekin egindako hitzarmenaren berri eman da laugarren puntuan.
- 5.- Idazkari – kontu-hartzaileari jarduna %60tik %30era jaitsi eta %100ean aritzeko administraria kontratatzeke deialdi publikoa ateratzea onartu da bosgarren puntuan.
- 6.- Nafarroako, Ipar Euskal Herriko eta Euskal Autonomia Elkarteko hautetsien elkarteek emango dituzten hurrengo urratsen inguruko hausnarketa egin da seigarren puntuan.
- 7.- 2016ko kontuen kitapena onartua izan da, zazpigarren puntuan.
- 8.- 35.000 euroko kopurua soberakinetik hartu eta aurrekontuan txertatuz aurrekontuen moldaketa egitea erabaki da zortzigarren puntuan.
- 9.- Artea, Meñaka, Zerain, Errigoiti, Larrabetzu, Mendaro eta Ziortza-Bolibarreko udalak partzuergo-kide bezala onartuak izan dira, bederatzigarren puntuan.



10.- Udaltzaren Bagabiltza prozesuari buruzko hausnarketa eman da hamargarren puntuan.

11.- Adierazpen instituzionalen zabalpenerako irizpideak adostu dira hamaikagarren puntuan.

=====



UDALBILTZA PARTZUERGOAREN KONTSEILU NAGUSIAREN BATZARRALDIKO AKTA

Oiartzungo Udalean, bi mila eta hamazazpiko ekainaren 16an, arratsaldeko 5'15ak direnean, bildu dira bigarren deialdian, ondoren zerrendatzen diren udaletako ordezkariak, zeintzuk aldeaz aurretik beren izendapena aurkeztu duten.

Bertaratutako Udalak:

	UDALA
1	Altzo
2	Anoeta
3	Antzuola
4	Arakaldo
5	Arbizu
6	Areso
7	Astigarraga
8	Ataun
9	Atxondo
10	Aulesti
11	Berastegi
12	Berriatua
13	Berrobi



14	Dima
15	Getaria
16	Goizueta
17	Hernani
18	Ibarra
19	Mañaria
20	Markina Xemein
21	Oiartzun
22	Oñati
23	Otxandio
24	Segura
25	Usurbil
26	Zaldibia

Ez dira bertaratu ondoko udalak: Aizarnazabal, Ajangiz, Amoroto, Araitz, Arratzu, Bakaiku, Barrundia, Ea, Elduain, Ergoiena, Etxalar, Etxarri-Aranatz, Etxauri, Ezkio, Gatika, Irura, Itsasondo, Iturmendi, Lakuntza, Leaburu-Txarama, Leitza, Lezo, Lizartza, Muxika, Olazti, Ondarroa, Uharte-Arakil, Urdiain, Zestoa, Ziordia, Zizurkil, Zubieta.

Bertaratutako gonbidatuak: Haizea Isasa, Gorka Torre.

Luis Intxauspe Lehendakari jaunak zuzentzen du bilkura.

Udalbiltzako zuzendari bezala, hitzarekin baina botorik gabe Arantza Ruiz de Larrinagak andereak parte hartzen du.

Udalbiltzako teknikari bezala, Ainara Iraeta, Argitxu Etxandi eta Oihane Uitzu andereak hitzarekin baina botorik gabe parte hartzen dute.



Parte hartzen du eta ekitaldiaren fede ematen du Udalbiltza Partzuergoko idazkaria den Eguzkiñe Aiesa Andres andreak.

Quoruma dagoela ziurtatzean, bilerari hasiera ematen zaio, honako edukiak landuz:

LEHENA.- Aurreko akten onarpena:

Luis Intxauspe lehendakariak egin du puntu honen hasierako azalpena.

Gaia eztabaidatu ondoren eta zuzenketarik proposatu ez denez, aurreko bilkurako akta aho batez onartua izan da.

BIGARRENA.- Lehendakariaren ebazpenen berri eman:

Eguzkiñe Aiesa andreak egin du puntu honen azalpena. Azkeneko Kontseilu Nagusiaz geroztik lehendakaritzak emandako ebazpenen berri eman du.

1) 24/2016 LE: Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren aldeko 10.000 eurotako transferentzia finalista onartzea.

Euskal Garapen eta Kohesio Fondoak Arantzadi Zientzia elkarteari ordaindu beharreko diru-laguntza ordaintzeko.

2) 25/2016 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

3) 26/2016 LE: Aurrekontu moldaketaren espedientearen hasiera.

Aurrekontuko gastu partiden arteko kreditu transferentziaren espedientea hasi.

4) 27/2016 LE: Aurrekontu moldaketaren espedientearen onarpena.



2. kapituluko 6. partidatik (Ekitaldiak), 4. kapituluko 1. partidara (EGKF erakunde autonomoari) 3.200 eurotako kreditu transferentzia egitea.

5) 28/2016 LE: Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren aldeko 3.200 eurotako transferentzia finalista onartzea.

Transferentzia hau soilik Euskal Garapen eta Kohesio Fondoak Euskal Herriko Laborantza Ganbarari ordaindu beharreko 2016/531 zenbakidun faktura ordaintzeko.

6) 29/2016 LE: Gasteizko epaitegiko 363/16 auzian azaldu eta abokatua izendatzea.

Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2 Zenbakiko Epaitegiko ADM. AUZIEN ZULUPean 363/16 zenbakiko administrazioarekiko auzi errekurtsua (ohikoa) azaldu eta Joseba Compains Silva Jauna Udaltzaria Partzuergoaren abokatu izendatzea.

7) 30/2016 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

8) 31/2016 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

9) 32/2016 LE: Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren aldeko 3.920 eurotako transferentzia finalista onartzea.

10) 33/2016 LE: Udaltzaria Partzuergoko langileen soldata behin-behinean igotzea onartzea.

11) 1/2017 LE: Komunikazio funtzioak betetzeko enpresa baten urgentziatzko kontratazio espedienteari hasiera ematea.

12) 2/2017 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

13) 3/2017 LE: Xanti Kiroga langilearen eskaerari erantzuna.



Xanti Kiroga Astiz Jaunak hamahiru egunez lanik ez egiteko egindako eskaera baimentzea.

14) 4/2017 LE: Komunikazio enpresaren kontratazio espedientearen onarpena.

Jardunbide negoziatu bidez kontratatzeko espedientea eta honi dagozkionaren onarpenak.

15) 5/2017 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

16) 6/2017 LE: Komunikazio kontratazioaren esleipenaren onarpena.

Mundu Mira Kooperatiba Elkarte Txikiari esleipena.

17) 7/2017 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

18) 8/2017 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

19) 9/2017 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

20) 10/2017 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

21) 11/2017 LE: Aldi baterako Ikerbiltza teknikari bat gehiagoren kontratazioa.

2015eko irailean egindako hautaketa prozedurak emandako lan poltsako ordena jarraituta, bigarren eta hirugarren postuetako pertsonen ezezkoa jaso eta gero, laugarren postuan zegoen Oihane Uitzu Abarquero kontratatzea.

22) 12/2017 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

23) 13/2017 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

24) 14/2017 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.



25) 15/2017 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

26) 16/2017 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

27) 17/2017 LE: Lehendakariaren eskumena diren gastuen onarpena.

Hitzen tartea zabaltzerakoan, ez da ekarpenik egon.

HIRUGARRENA.- Soldata igoeren onarpena:

Luis Intxauspe Jaunak egin du puntu honen azalpena: Udaltzaria Partzuergoa administrazio publikoa izan arren, bertako langileen soldata gainerako erakunde publikoenaren oso azpitik zegoenez, ekipo berrirako kideak lortzeko eta zeuden langileak egonkortzeko zailtasunak zeuden. Hori Batzorde Eragilerara eraman zen, eta bi kolpetan baldintzak erakundeen mailara ekartzen saiatzeko soldatak eguneratzea erabaki zen bertan. Hala, 200 euro garbi igo zitzaizkien teknikariei eta idazkariari, beraz, jardun osoan dagoen teknikariak 1.600 euro garbi kobratuko ditu, jardun osoan dabilen idazkariak 1.900 (gure partzuergokoa %60an ari da egun) eta zuzendariak 2.000. Honekin batera, lanpostura joateko kilometrajeak eta dietak ordaintzeari utzi zitzaion.

Gaiari ekarpenik egin gabe, 2017ko urtarrilaren 1az geroztik aplikatu den soldata goera atzeraeraginezko efektuarekin onartzea adostu da aho batez.

LAUGARRENA.- Ipar Euskal Herriko Hautetsien Elkartearekin hitzarmena:

Luis Intxauspe jaunak egin du puntu honen azalpena. Hurbiltzen Programako Udaltzaria Partzuergoko teknikariak abenduan lana utzi zuenez, postu bera betetzeko pertsonaren bat behar zen. Deialdia ateratzeko denboraz larri genbiltzanez, eta



interesatuta zegoen eta egoki ikusten genuen pertsonak estatu frantseseko kontratua izatea nahiago zuenez, Udalbiltza Elkartearekin (Ipar Euskal Herriko Hautetsien Elkartearekin) hitzarmena egin zuen partzuergoak.

Hitzarmenak jasotzen zuenaren arabera, Udalbiltza Elkartearen ohiko funtzionamendurako 30.000 euroko diru-laguntza emango zuen partzuergoak, baina Hurbiltzen programa lehenengoak landuko zuen aurrerantzean eta Pirinioetan Lan eta Bizi programaren itxiera egiteko kontratatu beharra zegoen pertsona ere Udalbiltza Elkarteko langile izango zen. Handik kontratatu dira, beraz, Argitxu Etxandi (Hurbiltzen) eta Haizea Isasa (Pirinioetan Lan eta Bizi).

Gaia ekarpenak egiteko ireki da baina ez da hitzik egon.

BOSGARRENA.- Idazkari berriaren kontratazioa.

Luis Intxauspe Jaunak egin du puntu honen azalpena: Idazkari – kontu-hartzailearen postuan, berezkoak ez diren funtzio dezente egiten dira gaur egun (administrari lanak). Horretaz gain, profil juridikoa baino garrantzia handiagoa hartzen du finantza profilak Udalbiltza Partzuergoan kasuan. Hori administrari baten kontratazioarekin konpon liteke.

Kalkuluak eginez irtenbideak aztertuta, idazkaria A mailako langilea izanik eta administraria C mailakoa, diru gutxi gehiagorekin bi laguneko ekipoa osatu daitekeela ikusi da.

Egiten den proposamena, idazkari – kontu-hartzailearen adostasunarekin egiten dena, honi bere jarduna %60tik %30era jaitsi eta %100ean aritzeko administraria kontratatzeko deialdi publikoa ateratzea da.



Gaia eztabaidagai jartzerakoan, ez da ekarpenik egon, baina aho batez izan da onartua bozketan.

SEIGARRENA.- Federazioa Partzuergoan sartzea.

Luis Intxauspe Jaunak egin du puntu honen hasierako azalpena: Oraintxe bertan Hego Euskal Herriko herriak baino ezin dira Udaltzaren Partzuergoko kide izan. Hautetsiak, bestalde, Ipar Euskal Herriko hautetsien elkarteetan (Udaltzaren Elkartea deitzen dena), Nafarroako Hautetsien Elkarteetan edo EAEko Hautetsien Elkarteetan atxikitu daitezke, baina hauek egun ez dute Partzuergoarekin harreman organikorik. Hautetsiak partzuergokide izateko, hiru elkarte hauen artean federazioa sortzea proposatzen da, gero hau Udaltzaren Partzuergoan sartu ahal izateko.

Urtea hasi zenetik gai honekin aurreratzeko denborarik izan ez dugula baina urte bukaerako Kontseilu Nagusian federazioa Partzuergoan sartu ahal izateko helburuarekin udara honetan egin beharreko kudeaketak egingo ditugula azaldu du Intxauspe jaunak.

Gaia eztabaidagai jarri da, baina ez da ekarpenik jaso.

ZAZPIGARRENA.- 2016ko behin betiko itxiera.

2016ko Partzuergoaren aurrekontuaren kitapen txostena bidali dugu. Bertan azaltzen denaren artean, honakoa nabarmendu du Eguzkiñe Aiesa andreak:

- Hasierako aurrekontua 274.120 eurokoa zen, baina Gasteizko Udalarekin egindako hitzarmenaren eraginez 110.000 eurotan hazi zela kontutan hartu behar da, beraz, 384.120 eurokoa izan da behin betiko aurrekontua.



- Oro har, gastu zein sarreren aurreikuspena ona zen:
 - Aldarazpen gehienak Gasteizen eraginez izan dira.
 - Aurreikusitako sarrera eta gastu gehienak izan ditugu.
- 2016 ekitaldiko aurrekontua ongi bukatu da, 37.647,75 euro positiborekin. BAINA:
 - 32.800 euroko kobrantzak anulatu ditugu, kobratzerik espero ez dugulako.
 - **BERAZ, 2016ko ekitaldia 4.848,74 euro positiborekin amaitu** dugu.
- **Diruzaintza gerakina 167.492,57 eurotakoa da.**

Gaia eztabaidara jarri delarik, aurkeztutako kontuen kitapena aho batez izan da onartua.

ZORTZIGARRENA.- Aurrekontuen moldaketa.

Luis Intxauspe jaunak egingo du puntu honen azalpena: 2017ko aurrekontuak egiterakoan, aurtengo jardun politikoak diruzaintza soberakinetik hartzea ekarriko zuela ikusi genuen. Orain, behin 2016ko kitapena eginda, moldaketak egiten hasteko momentua dela adierazi du, honako beharrek bultzatuta: Lehenik, Ipar Euskal Herriko Elkartearekin egindako hitzarmenaren eraginez, laugarren kapituluko zenbatekoa handitu beharko dugu, 30.000 euro pasatu baititugu momentuz, baina 10.000 euro gehiago beharko dira eta. Bigarrenik, Udaltzarian Bagabiltza prozesuko aholkularitza



ordaintzeko 19.000 euro gehiago beharko dugu. Azkenik, Pirinioetan Lan eta Bizi programa isteko 6.000 euro beharko dira.

Hortaz, honako akordioa proposatu du Lehendakari jaunak: arestian aipatutako kopuruak batuz ematen duen 35.000 euroko kopurua soberakinetik hartu eta aurrekontuan txertatzea.

Gaia eztabaidagai jarri ostean, aho batez onartua izan da akordioa.

Eztabaidan zehar, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin azken hilabeteotan egondako hartu-emanen berri eman du Lehendakari Jaunak, 2015ean honek Udaltzaria Partzuergoari emandako 100.000 euroko diru-laguntza itzuli beharrean baitago Partzuergoa, Espainiako Gobernuaren Delegaritzak ezarritako helegitea galdu eta gero.

BEDERATZIGARRENA.- Partzuergokide berrien onarpena.

Luis Intxauspe jaunak egin du puntu honen azalpena. Azaldu duenez, Artea, Meñaka, Zerain, Errigoiti, Larrabetzu, Mendaro eta Ziortza-Bolibarreko, Udalek partzuergo-kide izateko eskaria luzatu diote Kontseilu Nagusiari.

Gaia eztabaidagai jarri eta gero, honako erabakia hartu da aho batez:

1.- Artea, Meñaka, Zerain, Errigoiti, Larrabetzu, Mendaro eta Ziortza-Bolibarreko Udalek partzuergo-kide izateko egindako eskariak onartzea eta hortaz, aipatu udalerririk partzuergo-kide bezala onartzea.

2.- Partzuergoko Kontseilu Nagusian haien udalaren ordezkari izango den hautetsia izendatzeko eskatzea.



3.- Akordio hau Artea, Meñaka, Zerain, Errigoiti, Larrabetzu, Mendaro eta Ziortza-Bolibarreko udalei jakinaraztea.

HAMARGARRENA.- Udalbiltzan Bagabiltza:

Luis Intxauspe jaunak egin du puntu honen azalpena: Prozesuaren hasieratik gaurdainoko mugarri nagusien errepaso egin eta gero, lau lan taldeetan banatu dira bilerako parte hartzaileak aurretik bidalitako sintesi txostenaren ondorioak ordenatzeko. Ondoren, berriro ere plenarioan lan talde bakoitzak bere ondorioak azaldu eta eztabaidagai jarri dira.

HAMAIKAGARRENA.- Udalei laguntza adierazpen instituzionalak zabaltzeko:

Luis Intxauspe jaunak egin du puntu honen azalpena: azken hilabeteotan eragile ezberdinekin egindako harremanetan, beren berriak zabaltzeko Udaltzaria Partzuergoak bere bideak erabiliz lagun dezala eskatu izan dutela adierazi du. Horrekin batera, Udaltzaria Partzuergoak berak sortzen dituen berrien zabalpena egiteko ere beharrezkoa da partzuergokideen bultzada.

Aurrekoagatik, Udaltzaria Partzuergoak egiten dituen adierazpenen hedapenean laguntzeko eskatu die Udalei. Eragileen berriak zabaltzeari dagokionean, Partzuergoaren ildoekin harreman zuzena dutenen zabalpena mugatzea proposatu da.

Gaia eztabaidatu eta gero, aho batez izan da akordioa onartua.

HAMABIGARRENA.- Galderak eta iradokizunak.

Ez da galderarik egon. Lehendakariak bertaratutakoei eskerrak eman eta uztailaren 4, 11 eta 18an ospatuko diren Udaltzarian Bagabiltza prozesuari buruzko



deialdiak gogorarazi dizkie.

Eta deialdi honen helburua bete delarik, Lehendakariak batzarraldia amaitutzat ematen du, arratsaldeko 7ak eta 10 minutu direnean, nik Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.